

4. Hiru urtetik behin, gehienik saiatu denaren ardura ordaintzeko 25.000 pezetako sari berezi bat banatuko da, denbora horretan Euskaltzaindiak ontzat eman dituen lanak kontutan hartuta.

5. Lehenbiziko urte honetan bildumak bidaltzeko Urteberri aldera zabalduko da.

6. Aukeratutako elkarrizketa guztiak Euskaltzaindiak beretzat gordeko ditu. Besteak egile bakoitzari itzuliko zaizkio.

7. Lan guztiak Euskaltzaindira bialduko dira, (Ribera kalea, 6, Bilbo-5) edo beronen edozein ordezkartzara.

8. "Cassette" bakoitzarekin batera, egilearen izen deiturak, eta bizilekua ezarri behar dira orri batean, eta elkarrekin zorro batean sartu.

e) EUSKAL ARTEAZ ETA ARTE HIZTEGIAZ:

J. San Martinen txostena. V. Udako Euskal Unibertsitatea, abuztuan izateko zena, uztailean aurreratzeaz bere etorri ezina agertu du, Artez eman behar zuen ikastaroa. U. E. U.ren lehen urteetan eman zuen ikastaroaren adibide batzuk agertu ondoren, arte inbentariogintzaz eta herritar artea aztertzeaz zenbait ohar azaldu ditu, eta, azkenik, arte lan hauek euskaraz eramateko hain beharrezkoa den hiztegiak mintzatu da. Haste-ko, gertatu dituen zortzirehun bat fitxaren berri eman du. Hiztegi hau artez euskaraz idatzi duten J. Altuna, R. M. Azkue, J. M. Barandiaran, Euskaltzaindia ("Zortzi urte arteko Ikastola hiztegia"), E. Kortadi, M. Lekuona, L. Mitxelena, A. Valverde eta bere lanetatik atereak dira.

f) "A" ORGANIKOAZ AMAITUTAKO HITZEN DEKLINAZIOAZ:

J. Basterretxea jaunaren txostena. A organikoaren erabilkeraz zenbait adiarazten agertu ditu, eta A hori gordetzearen premia. A-rekin berez bukatzen diren hitzak, inoz *-ia* edo *-ea*-ran aldatzen direnak, behar bada hobe direla *-aa* bi bokal berdinez jartzea. Honen adibideak agertu ditu, batez ere pluralean jartzean nolako erak hartzen diren aditzera emanaz.

Ohi den otoiitzarekin bukatu da batzarra.

OROTARIK:

Idazkari-ordeak zeraren kontu ematen du: azken batzarrean, erabaki bezala, Euskaltzaindiak Heziera eta Jakintza Ministergoari Euskal Unibertsital Barrutia eskatuz zuzenduriko gutunarena, eta berau, hemendik, Iruinetik bidaliko zaiola.

Iragarri du, baita, hurrengo bi bileren berri; hots, abuztukoa, azken ostiralean, Donostian, hileroko arrunta izanen dena, bertan aditz sintetikoaren onhartzea amaitzeko, eta irailekoa, Bilbon, 24ean, Juan Mateo Zabala euskal idazle bilbotarraren berreungarren urteburua ospatuz.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - VIII - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko abuztuaren 26an, arratsaldeko 4retan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, J. San Martin, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranlde, M. Atxaga, I. Berriatua, P. Charritton, J. Goiakoetxea Maiza, J. Intxausti, J. M. Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, L. M. Mujika, I. Sarasola, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko batzar agiria onartu da.

a) HARREMANAK:

Gipuzkoako Diputazioaren gutun bat irakurri da, herri ta herritarrei buruz egin ditugun lanegatik eskerrak emanaz eta EUSKERA, XXI, 1976ko zenbakiaren separata gehiago eskatuz.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Emaille diren argital-etxeeri eskerrak ematea erabaki da. Hartu diren liburuen artean, aipamen berezia merezi dute U. E. U. (Udako Euskal Unibertsitateak) aterra dituenak.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Parlamentarien deiari erantzunaz, elebitasunari buruz, berekin egin diren bileren berri eman da.

Alfabetatze barne erregelak, titulua eta Alfabetatze-Euskalduntze batzordearen proposamena, dagoen dagoenean onartzen da.

Hezierako ministro jaunarekin izandako bileraren berri eman da.

Mitxelenaaren exzedentziaz hitz egin da, baina ber berak eskatu du oraingoz guk gure aldetik ezer ez egitea.

Mitxelenaaren hitzegiaz ere mintzatu da eta irailaren lehen partean zuzendaritzakoak Mitxelena berarekin batzar bat egitekotan gelditu dira.

Nafarroako Ikastola Federazioari Euskaltzaindiaren babesa ematen zaio, legezatzte jesterako eta hizkuntzarekiko diren arazoetan.

Bigarren bilkuran, aditz sintetikoa onartzeaz, euskaltzainekin batu dira aditz batzordeko eta laguntzaile jaun hauek: Alvarez Enparantza, Berriatua, Intxausti, Kintana, Letamendia, Lizundia, L. M. Mujika eta

Zearreta. Jasotako oharrak aztertu dira. Eta euskaltzainburu jaunak eskerrak eta zorionak ematen ditu batzordekoentzat.

Azkenik, datorren urtean Bergaran egingo diren biltzarretarako Hizkuntz batzordea osatzeaz. Ez da etorri proposamenik eta batzartuak lehengoz gainera, honako lau berri hauk jartzea erabaki dute: Aita P. Iraizoz, A. Irigaray, J. A. Loidi eta M. Zarate jaunak. Eta, biltzar eratzailleen batzorderako, Fz. Arroyaberen ordeaz beste bergarar bat izendatuko da.

d) UZEI Euskal Unibertsitatearentzat aurregitura batez:

Joseba Intxaustiren txostena, UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) deritzan elkarte sortzeaz eta dituen asmoak zer diren. Euskal Herriko Unibertsitate batean euskara erabiltzeko eta euskaraz irakasteko beharko den tresneria nola antolatu eta abar.

Lanak aurrera eramaten laguntzeko Euskaltzaindiaren onespena premiagarritzat jotzen du eta babesa ematea erabaki da.

e) GABIRIA-REN ETIMOLOGIAZ:

Xabier Kintanaren txostena. Gabe-iria = Villafranca itzulpenez izan daiteken iritzia agertzen du, zenbait argudioren ondorean.

Ondorengo elkarrizketan, Olazaharretatik edo pertsona izenetik etor daiteken iritzia ere agertu da.

f) EUSKAL IZENDEGIARI BURUZ AGERPENA:

J. M. Satrustegiren txostena. Euskal izendegiaz jarraitu zuen aburua eta lan prozedura agertuaz, eta aldizkariaren bidez A. Irigoyen jaunagandik jaso dituen kritikak adiaraziz.

Irigoyen jaunak bere arrazoiak agertu ditu. Eta idazkariak, gure barneko gauzak gure artean eztabaidatzea eskatzen du, kazeten bidez kanpora begira jardun gabe.

Euskal izendegia eramateko prozedura eztabaidatu da. Batzuen ustez hiztegiekin jarraitzen den bide bera jarraitu behar da, baina beste batzuen ustez, izendegiak ez du hainbeste ikustekorik hizkuntzaren funtsarekin eta ez da hain beharrezko bide bera eramatea, batez ere lanak bizkortuko badira.

g) OINARRIZKO EUSKARARI BURUZ ZENBAIT OHAR:

Ifarraldekoen literaturan agertzen diren *ahal izan* eta *ezin izan* aditzen erabilkeraz zenbait ohar adiarazi ditu I. Berriatua jaunak, eta hontaz beharrezkoa den paradigma egiteaz guzien laguntza eskatzen du.